

DOAKO BISITA GIDATUAK

AMURRIOra trenez hurbiltzen bazara

DATAK:

Larunbatak

Urrian: 14,28

Azaroan: 11,25

Abenduan: 9

ORDUTEGIAK:

12:00 **Andra Mari Eleiza**

17:00 **Likorearen Museoa**

IRAUPENA: Ordubetea

HIZKUNTZA: Gasteleraz

URRIA							AZAROA							ABENDUA						
L	M	X	J	V	S	D	L	M	X	J	V	S	D	L	M	X	J	V	S	D
						1			1	2	3	4	5					1	2	3
2	3	4	5	6	7	8	6	7	8	9	10	11	12	4	5	6	7	8	9	10
9	10	11	12	13	14	15	13	14	15	16	17	18	19	11	12	13	14	15	16	17
16	17	18	19	20	21	22	20	21	22	23	24	25	26	18	19	20	21	22	23	24
23	24	25	26	27	28	29	27	28	29	30				25	26	27	28	29	30	31
30	31																			

Leku mugatuak dira. Erreserba beharrezkoa da:

Tlf. 945 393704

turismo@amurrio.org

ANDRA MARI ELEIZA

Jatorria XIII. mendean izan arren (erromaniko berantiarra), tenpluaren zati handi bat XVI. mendekoa da, errenazentista estilokoa.

Tenpluko kapera nagusian, XVII. mendearen lehen erdiko multzo arkitektoniko eta eskultorikoa nagusitzen da. Oholtzaren erdian, Santa Mariaren Jasokunde eta koroazioaren misterioa ageri da, oinarri teologiko eta pedagogiko sakoneko lana. Oholtzaren berezitasuna da erdialdea baino ez duela urre-kolorekoa, gainerakoa egurrezkoa delarik.

Guadalupeko Ama Birjinaren omenez egindako kaperak idulkia eta teilatua askotariko forma geometrikoez osatuta ditu.

Kanpandorrean, brontzezko 31 kanpai daude; horietatik 25ek elizako karilloia osatzen dute, Euskal Herriko multzo handiena.

Elizak Parisen hezitako eta Picassoren eragin handia duen Juan Aranoa bilbotarrak margoturiko Gurutze Bidea dauka ere.



LIKOREAREN MUSEOA

Amurrioko Likorearen Museoa mota honetako Euskal Herriko aurrenekoa da. 1831n sortu eta Amurrión 1880tik kokatutako Manuel Acha destilategiaren ibilbidea erakusten du. Euskal Herriko enpresarik zaharrena da eta Europa osoko enpresa zaharrenetako bat.

Likoreak ekoizteko prozesuan erabiltako pieza bakar eta tresnak, argazki, botila eta beste tramankulu batzuk erakusketa gelatan daude ikusgai, hauen bidez ia bi mendetako epea barnebiltzen duen Amurrioko historia eta bere industriaren ibilbide baten berri luzatuz. Likorearen Museoan, ekoizpen-prozesuak ere ezagutu daitezke, baita mende batetik gorako historia duen enpresari buruzko bitxikeriak ere. Aukera paregabea da likoreen fabrikazioak historian izandako ibilbidea egiteko. Bertan daude XX. mendearen hasieran erabiltzen ziren upelak, kontabilitate-liburuak, publizitate-materiala...




NOLA HELDU TRENEZ

ORDUTEGIA BILBAO-ABANDO GELTOKITIK			
Linea	Bidaia iraupena	Irteera	Helduera
C3	39 minutu	10.05	10.44
C3	39 minutu	11.05	11.44

ORDUTEGI OSOA IKUSTEKO:

<http://www.renfe.com/EU/viajeros/cercanias/bilbao/index.html>

RENFE ALDIRIAK



AMURRIO



AMURRIOKO TURISMO BULEGOA

Aldai 1 baxua, la Casona eraikina.

Tlf. 945 393 704

turismo@amurrio.org

www.amurrioturismo.com